

KOSTUEN EGITURA

Gure enpresaren helburu nagusia kostuak murriztea izan da. Izan ere, ikasleak gara eta ez dugu diru askorik horretan inbertitzeko. Horregatik, gure aplikazioak orokorrean kostu gutxi ditu, eta beraz, uste dugu ZUBI nahiko errentagarria dela, gastu gutxi baitira eta gure poltsikotik oso gutxi inbertitu beharko baitugu. Horrez gain, gaur egungo egoeran, askok erabili nahiko dute gure zerbitzua; izan ere, langabezian dauden pertsonen kopurua asko handitzen doa hilabetero. Hau da, uste dugu bezero asko izango ditugula epe luzera begira, langabezia arazo bat baita eta, zoritxarrez, luze joko du. Baina, gu bezalako enpresei esker, gutxitu egingo da horrek jendearengan duen eragina.

Hala ere, gure enpresak garai onak eduki ditzaken bezala, gorabeherak ere izan ditzakeela uste dugu, eta hori gure bezeroen menpe egongo da gehienbat. Izan ere, haiek emango diote bizia gure negozioari. Bestela esanda, gure irabaziaz handitzeko ahaleginak egin arren, bezeroen mugimenduek erabakiko dute ZUBI urte ona izango duen ala ez. Hortaz, eta lehen esan dugun bezala, etorkizun oparoa ikusten diogu gure enpresari, gure kostuak oso txikiak direlako. Eta horrek diru-sarrera gehiago izaten lagunduko digu, dirua inbertitu behar dugun kostuak oso gutxi baitira. Esaterako, gure proiektua aurrera ateratzeko, hainbat baliabide fisikoekin kontaktzen dugu, ordenagailua, mugikorra eta lokala. Gainera, baliabide hauek eskuratzeko ez ditugu zailtasunik izango, izan ere, bakoitzak etxean ditugun mugikor eta ordenagailuak aprobetxatuko ditugulako, beraz bi hauek ez dugu dirurik inbertituko. Ondorioz, oso diru kantitate gutxi inbertitu beharko dugu gure enpresari hasiera emateko.

Hasteko, kostu finkoei dagokienez, aplikazioa patentatu egin beharko dugu, ideia guztiz berria delako eta horretarako 267€ ordaindu beharko ditugu. Izan ere, nahiz eta askotan ez gertatu, batzuetan jendeak beste enpresa baten ideiak kopiatzen ditu, horregatik, hori gertatu ez dadin, patentatu egingo dugu gure aplikazioa.

Horrez gain, gure aplikazioa Play storera igotzeko 25\$-ko gastua izango dugu eta App Storera 99\$. Baina kostu hau behin behinekoa izango da, hasieran bakarrik ordaindu beharko dugulako, aplikazioa merkatuan egonda ez dugu gehiago ordaindu beharko. Gu euskaldunak garenez eta gure txanpona euroa denez, dolarretatik eurora pasata 101,53€ko kostua edukiko dugu guztira igotzeko.

Gainera, guk lana egin ahal izateko eta informazioa eguneratua eramateko, lokal bat behar dugunez, *Uggasa* agentziarekin kontaktuan jarriko gara eta Urretxun bertan hartuko dugu bat. Hauek guri lana errazteko, hilabeteko 30€tan utziko digute. Alokairu honen barnean, lokala, argindarra, wifia etab. sartzan zaigu. Beraz, lokala errentan hartzen aurretzen dugun dirua gure enpresa aurrera eramateko erabiliko dugu. Bertan taldea bilduko gara astero eta billerak egingo ditugu. Bestalde, bezeroekin biltzeko ere erabiliko dugu bulegoa.

Kostu aldakorrei dagokienez, ondasun bat erosiz gero erraztasuna, eskuragarritasuna, segurtasuna eta erosotasun emateko, ondasun bat saltzen dutenean, eroslearen etxera guk geuk eramateko ardura hartuko dugu prezio ekonomiko baten truke. Aukera hori bezeroak eskatzen badu soilik izango litzateke. Kasu honetan, biosiesel gasolina kostu bat izango litzateke, eta kilometro bakoitzeko 0,12l beharko ditugula badakigunez, 0,13€ko kostua edukiko dugu. Beraz, Urretxutik Donostiara joateko, 60km direnez, 7,2l beharko ditugu, hortaz, 7,8€ gasolina gastatuko genituzke.

Uste dugu ez dela beharrezkoa izango aurreikusitakoa baino diru gehiago inbertitzea. Egoera kritiko batean bagaude, gure kostuak gure diru-sarrerak baino handiagoak izango balira, gure larrialdi-plana martxan jarri beharko genuke. Estrategia hori bezeroak kosta ala kosta bilatzean datza; gure sare sozialak erabiliko genituzke, bezero bila mugituko gineteke... Urte ez on

batentzako prestatzea ere ezinbestekoa iruditzen zaigu, ustekabeen ez harrapatzeko eta arazo horri aurre egingo dien egitasmoak lehendik prest edukitzeko.

LEHENENGO URTEKO KOSTUEN TAULA	
<p>KOSTU FINKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Patentatzea • Play Storea igotzea • App Storea igotzea • UGASSAko lokalaren alokairua 	<p>KOSTU FINKOEN BALIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 267€ • 20,47€ • 81,06€ • 30€/hilabeteko = 360€ urtean
<p>KOSTU ALDAKORRAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • GARRAIOA (gasolina): Hipotesiaz botaz, aurreratu dugu Gipuzkoan bertan 1.200km egingo ditugula urtan, eta bertatik kanpo 5.600km. Horrez gain, 700km egingo ditugu 24 ordu baino lehen paketea izan nahi duten horientatik. Beraz, guztira 7.500km egingo ditugu. 	<p>KOSTU ALDAKORREN BALIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 0,12l/km---->0,13€ • 7.500km x 0,12l=900l beharko ditugu guztira urte osoan • 900l x 0,13€=117€ gaztatuko ditugu guztira gasolinan
<p>GUZTIRA</p> <ul style="list-style-type: none"> • KOSTU FINKOAK • KOSTU ALDAKORRAK 	<p>GUZTIRA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 728,53€ + • 0,12l/km---->0,13€=117€ • 845,53€ko kostua izango dugu denera lehen urtean

BIGARREN URTEKO KOSTUEN TAULA	
<p>KOSTU FINKOAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • UGASSAko lokalaren alokairua 	<p>KOSTU FINKOEN BALIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 30€/hilabeteko=360€ urtean
<p>KOSTU ALDAKORRAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Garraioa (gasolina) 	<p>KOSTU ALDAKORREN BALIOA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 0,12l/km---->0,13€
<p>GUZTIRA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kostu finkoak • Kostu aldakorak 	<p>GUZTIRA</p> <ul style="list-style-type: none"> • 360€ urtean + • 0,12l/km---->0,13€

Gure soldatei dagokionez, ez dugu kantitate finkorik izango, gure emaitza ekonomikoa aldakorra izango baita. Hala ere, urte bateko emaitza ekonomikoa kalkulatu dugu, eta beraz, ondorioztatu dugu, bost taldekide garenez, bakoitzak urtean 8.954,73€ irabaziko lituzkeela gutxi gorabehera. Hau da, 746,23€ko soldata izango genuke hilabeteen. Urte txar bat izatekotan, uste dugu, gure soldatak lerro honetan mantenduko direla, uretero igoera eta jaitsierekin noski. Gainera, bigarren batxilergoko ikasleak garenez, uste dugu, nahikoa diru irabaziko dugula, nahiz eta gure helburua ez den dirua lortzea, baizik eta besteei laguntzea.

